

30. artikulua

Ikastetxeko Eskola Kontseilua Ikastetxeko Hezkuntza Komunitatearen ordezkari organoa da, eta bere eginkizunak ikasleen, gurasoen, irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta Erakunde Titularraren eskubideen errespetuan oinarritzen dira.

31. artikulua

Eskola Kontseilua honela osatua dago:

- a) Zuzendaria, Kontseiluaren buru dena
- b) Ikastetxeko Erakunde Titularraren hiru ordezkari
- c) Irakasleen lau ordezkari
- d) Gurasoen edo ikasleen legezko tutoreen lau ordezkari
- e) Ikasleen bi ordezkari, derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ikasturtetik aurrera
- f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat
- g) Udaleko zinegotzi edo ordezkari bat

LODE, 56

LOE DE 1 8

Ikasleen gurasoen edo legezko tutoreen ordezkari bat, bestalde, ikastetxean ordezkari handiena duen guraso elkarteak izendatuko du, hezkuntza administrazioak araututako prozedurari jarraiki.

Behin ikastetxeko Eskola Kontseilua eratuta, kontseilu horrek pertsona bat izendatuko du, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bultzatuko duten hezkuntza neurriak bultzatuko dituena.

Kide bakarreko organoren bat edo haren presentzia egokitzat jotzen den teknikariren bat Eskola Kontseiluaren deliberamenduetara azal daiteke, haren eskumeneko gaiak aztertzen baldin badira.

Lanbide heziketa eskaintzen duten itunpeko ikastetxeek enpresa munduko ordezkari bat sartu ahal izango dute Eskola Kontseilura. Ordezkari hori enpresa erakundeek izendatuko dute, hezkuntza administrazioek ezartzen duten prozeduraren arabera.¹

Zuzendari Titularra Kontseiluko kide ez bada, bilerara joan ahal izango da sarri, baina bozketetan ez du esku hartuko.

32. artikulua

Eskola Kontseiluko kideak aukeratu eta izendatzeko, eta gerora Hezkuntza Komunitatea ordezkatzeko duen kide anitzeko organo hori osatzeko, Ikastetxeko Zuzendari Titularrak ezarritako Prozedura Arauak beteko dira, Hezkuntza Administrazioak argitaratutako Arautegiaren arabera.

¹ Paragrafo hori lanbide heziketa eskaintzen duten ikastetxeei zuzenduta dago.

Eskola Kontseilua bi urtean behin berrituko da, erdika, Hezkuntza Administrazioak ezartzen duen prozedurari jarraiki, eta aldi horretan suertatzen diren lanpostu hutsak betetzea aparte utzita.

Irakasle, ikasleen guraso, ikasle, edo administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari baten plaza hutsik geratzen bada, plaza hori beteko du dagokien hauteskundeetan boto gehien izandako pertsonak, jadanik Kontseiluko kide izan direnen ostean.

33. artikulua

Hona hemen Eskola Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua landu eta aplikatzea.
- b) Zuzendari Pedagogikoaren izendapenean eta kargu uztean esku hartzea, Arautegi honetan aurreikusten denari jarraiki. LODE, 57, a)
- c) Irakasleen hautaketan eta kaleratzean esku hartzea, uztailaren 3ko 8/1985 Legearen 60. artikulua eta Arautegi honen artikulua diotenari jarraituz. LODE, 57, b)
- d) Ikasleak onartzeko prozesuan parte hartzea, horri buruzko arauak betetzen direla bermatuz. LOE, DF 1. 9, c)
- e) Diziplinazko gatazken ebazpenak ezagutzea, eta ebazpenok indarreko arautegia betetzen dutela zaintzea. Zuzendariak hartutako diziplina neurriak ikastetxeko bizikidetzak larriki kaltetzen duten jarrerekin lotuta daudenean, Eskola Kontseiluak, guraso edo tutoreen eskariz, hartutako erabakia berrikusi ahal izango du eta, hala behar denean, neurri egokiak proposatu. LOE, DF 1. 9, d)
- f) Erakunde Titularraren proposamenez, Ikastetxearen Aurrekontua onartzea, bai administrazioetik datozen funtsei bai baimendutako diru kopuruei dagokienez; eta baita urteko kontuak ematea ere. LODE, 57, e)
- g) Zuzendaritza Taldeak landuko duen Urteko Programazio Orokorra onartu eta ebaluatzea. LOE, DF 1. 9, f)
- h) Hala behar duenean, administrazioari proposatzea ikasleen gurasoek zerbait jasotzea, itundutako mailetan eskola jarduera osagarriak egitearen truke.² LODE, 57, g)
- i) Ikastetxearen ildo pedagogiko globalaren aplikazioan parte hartzea eta eskola jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak eta eskola zerbitzuak programatu eta garatzeko ildoak lantzea. LODE, 57, h)
- j) Hala behar duenean, eta Erakunde Titularraren proposamenez, itundutako mailetan eskolaz kanpoko jarduerak egiteko eta eskola zerbitzuetarako ikasleen gurasoek egindako ekarpenak onartzea, baldin eta eskumen hori dagokion Hezkuntza Administrazioak aitortuko balu. LODE, 57, i)
- k) Ikastetxeak kultura, kirol eta aisialdiko jardueretan parte hartzeko irizpideak ezartzea, eta baita ikastetxeak bere laguntza eskaini. LODE, 57, j)

² Katalunian, eginkizun hori honela dago idatzia: Zuzendari Titularraren eskariz, hezkuntza jarduera osagarriak egiteko ikasleen gurasoek jasoko dutena onartzea eta, hala behar duenean, Hezkuntza Administrazioaren baimena eskatzea, Zuzendari Titularraren bitartez.

- lezakeen asistentzia jardueretan parte hartzekoak ere.
- l) Kultura eta hezkuntza helburu izanik, beste ikastetxe batzuekin ^{LODE, 57, k)} lankidetzan aritzeko erlazioak ezartzea.
 - m) Erakunde Titularraren proposamenez, Ikastetxearen Barne ^{LODE, 57, k)} Erregimeneko Arautegia onartzea.
 - n) Administrazioari eta irakaskuntzari loturiko aspektuetan, ^{LODE, 57, l)} ikastetxearen martxa orokorra nolakoa den ikuskatzea.
 - o) Ikastetxean bizikidetzatza, emakumeen eta gizonezkoen arteko ^{LOE, DF 1. 9, m)} berdintasuna eta gatazken ebazpen baketsua bultzatuko duten neurri eta ekimenak proposatzea.

34. artikulua

Eskola Kontseiluaren **funzionamendu erregimena** honako hau da:

- a) Eskola Kontseiluaren bilerak zuzendariak deituko ditu eta zuzendaria bera izango da bilera horietako buru. Deialdia, gutxienez, zortzi egun lehenago egingo da eta gai zerrenda egongo da. Premiazko zerbait aztertu behar izanez gero, deialdia hogeita lau ordu lehenago egin ahal izango da.
- b) Kontseiluko kideren batek bilerako gai zerrendan ez dagoen gairen bat aztertzeko proposamena egiten badu, bilerara joango direnen bi herenek onartu beharko dute.
- c) Eskola Kontseilua urtean hiru aldiz bilduko da eskuarki, ikasturte akademikoaren hiru hiruhilekoetako bakoitzean. Ohiz kanpoko bilerak, berriz, Presidentearen edo Erakundearen eskariz, edo, gutxienez, Kontseiluko kideen erdiak hala eskatuta egingo dira.
- d) Eskola Kontseilua balioduna izango da bilerara kideen erdia eta bat gehiago joaten direnean.
- e) Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Honako kasu hauetan, berriz, gehiengo osoa izan beharko da: Zuzendaria aukeratzea, Barne Erregimeneko Arautegia onartzea, eta baita Arautegian aldaketak egitea eta Zuzendariaren izendapena baliogabetzea ere. Berdinketarik gertatuz gero, Presidentearen botoa erabakigarria izango da.
- f) Kide guztiek izango dute boto partikularra emateko eskubidea eta hori aktetan jasoa geratzeko eskubidea.
- g) Bozketa sekretua izango da baldin eta bozketa hori pertsonen gainekoa bada, edo bilerara joan eta boto eskubidea duten kideen heren batek hala eskatzen baldin badu.
- h) Bertaratutakoek isilpean eta diskrezioz gordeko dituzte aztertutako gaiak.
- i) Eskola Kontseiluko Idazkaria Presidenteak izendatuko du, aurrez kideek hala erabaki ondoren. Idazkariak bilera guztien gaineko akta idatziko du, eta hurrengo bileran behar diren zuzenketak egiteko eskubidea izango da. Behin onartu ostean, Idazkariak izenpetuko du, eta horren fede emango du Presidentearen oniritziaraz.

- j) Eskola Kontseilura joaten ez diren kideek Presidentearen aurrean justifikatu beharko dute ez joan izana.
- k) Ikastetxeko Erakunde Titularrak eta Eskola Kontseiluak hala erabakiz gero, Batzordeak eratu ahal izango dira. Batzordeon osaera, eskumenak, iraupena eta funtzionamendu erregimena, berriz, eraketa akordioan zehaztuko dira eta Arautegi honen eranskin gisan azalduko dira.
- l) Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariak kontseiluaren deliberamendu guztietan parte hartuko dute, salbu-eta, aztertuko den gaia dela-eta, Kontseiluak berak ikasleen ordezkariak ez egotea erabakitzen duenean.
- m) Kontseiluaren eskumeneko gairen bat aztertzea premiazkoa bada eta bilera bat deitzeko aukerarik ez badago, Zuzendaritza Taldeak bere gain hartuko du kontua eta egokitzat jotzen duen erabakia hartuko du. Aurreneko bileran, Presidenteak informazioa emango dio Eskola Kontseiluari eta hartutako erabakia aurkeztuko du, berretsi dadin.